



BIOTZA PIKO  
GASTEIZKO BERRITZEGUNeko  
LEHEN HEZKUNTZAKO AHOIKULARIA

# ESKOLA INKLUSIBOA: ATZERRITAR JATORRIKO IKASLEAK

EUSLE EKIMENA  
ESKOLAKO KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZAREN ESKURATZE-  
PROZESUA BIZKORTZEKO ETA HOBETZEKO PROIEKTUA

“Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak” (EUSKO JAURLARITZA, 2018) txostenak erronka gisa ezartzen du gure hezkuntza sistemara etorri berriak diren atzerriko ikasleen hezkuntza-harrera eta -erantzuna hobetzeko bidean aurrera egitea: “Epez kanpo eskolatu behar diren atzerritar jatorriko ikasleen kopuruak gora egin du pixkanaka, eta, bereziki, bakarrik dauden edo adinean aurrera doazen adingabeen kopuruak gora egin duenez, beharrezkoa da Eskolatze Lurralde Batzordeen irizpideak egokitzea, etengabe berrikustea eta harrera eta arrakasta egokia errazteko baliabide egokiak bultzatzea”. Txosten horrek azpimarratzen du, halaber, ikasle etorri berriek, oro har, beren jatorrizko herrialdeetan kalitatezko hezkuntzarako sarbide mugatua izan dutela eta haien eskolatzea eten egin dela. Egoera horrek porrota eta eskola uzteko arriskua areagotzen ditu.

Gure erkidegoan, 2003-2004 ikasturtean hasi ziren ikasle etorkinei arreta emateko programak eta planak eta ikasturte horretan sortu zen Hizkuntza Indartzeko Irakaslea (HIPI), eskolatzeko berantiarreko ikasleen gizarte- eta hizkuntza-egokitzapenari erantzuna emanez. Egun, indarrean dugun Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak ildo estrategiko hau ezartzen du: “Eskola inklusiboak ikasle guzti-guztietan eskaini behar dizkie hezkuntzan aurrera egiteko aukera berberak, bai eta ikasketetan eta beren bizitzan ezinbesteko gerta lekiekin edonolako laguntza ere (curriculumean, beren bizitzan, laguntza materiala...), nor bere autonomia garatzeko gai izan dadin inguru bat eraikitzea, horixe

da kontua, bai eta hura pertsonen bizimodura egokitzea ere, neska-mutilen artean egon litezkeen desberdintasunei aurre egin eta talde nahiz pertsona zaurgarrienei beharrezko gerta lekizkiekeen babes eta laguntza espezifikokoak bermatzeko” (EUSKO JAURLARITZA, 2018).

Bestalde, EAEn egindako kanpo-ebaluazioek erakusten dute eskola-porrota, hein handi batean, komunikazio-hizkuntzan gaitasunik ez izatearen ondorio dela. Horren harira, 2017ko Diagnostiko Ebaluazioari buruzko txostenean honako hau adierazten da: “Ikasle etorkin ia guztiek lortzen dituzten emaitzak dira, gaitasun guztietan, bertako ikasleekin baino nabarmen okerragoak”. Baina honako hau ere azpimarratzen da bertan: “Hala ere, etengabe murrizten ari dira bi taldeen puntuazio-aldeak (ikasle etorkinak eta ikasle autoktonoak)” (ISEI-IVEI, 2018).

Testuinguru horretan, batetik, ikasturtean zehar eskolatzen diren atzeritar jatorriko ikasleek kopurua gora doa etengabe, eta bestetik, gero eta handiagoak dira gizarte- eta hizkuntza-eskakizunak. Beraz, horrek guztiak ikuspegi eta metodo berriak garatzera eramaten gaitu ezinbestean, ikasle horien hezkuntza-arreta eta -murgiltzea errazteko, etorkizunean arrakasta akademikoa eta soziala erdietsi dezaten.

Horregatik, ikasle bakoitzaren behar espezifikokoak behar bezala identifikatu behar dira, eta, era berean, tresna eta baliabide eraginkorrek diseinatu eta ezarri, ikastetxeek ikasleei emango dieten harrera indartu eta hautemandako beharren arabera hezkuntza-erantzun edo -ibilbide espezifikokoak garatzeko. Europako Kontseiluak adierazten duen bezala, ikasleek inklusioa eta eskolan arrakasta lortzea hezkuntza-gaitasunen mende daude neurri handi batean. Ikasle batzuk desabantailan egon daitezke, baina denek, beren hizkuntza errepertorioa edozein delarik ere, eskolako hizkuntzan komunikatzen ikasi behar dute. Eskolako hizkuntza(k) menderatzea funtsezkoa da eskola-arrakasta lortzeko eta gizartean aurrera egiteko (COUNCIL OF EUROPE, 2019).

Horrela, beharrezkotzat jo zen berariazko plangintza bat diseinatzea eskolako komunikazio-hizkuntzaren eskuratzeko-prozesua bizkortzeko eta hobetzeko; hizkuntza baita inklusiorako eta curriculum eskuratzeko tresna nagusia.

## EUSLE EKIMENA BERARIAZKO ESKU HARTZEKO PROPOSAMENA

### ESKOLA INKLUSIBOAREN MARKOA

Hezkuntza Sailak bultzatutako *Hezkuntza inklusioa garatzeko esparru-planak (2019-2022)* ikasle guztiek beren gaitasun pertsonalak eta bizitzarako konpetentziak ahalik eta gehien garatzea du helburu, irteera profileen aurreikusitako oinarriko konpetentziak lortze aldera (EUSKO JAURLARITZA, 2019). Inklusioa bide baten moduan ulertu behar da, ikasle guztien ikaskuntza, partaidetza eta lorpen akademikoa xede dituen bide baten moduan, alegia. Hezkuntza inklusiboak paradigma-aldaketa dakar, beraz, egoera berri guztiei erantzun ahal izateko esku-bide-berdintasunaren, ekitatearen eta gizarte-inklusioren printzipioetan oinarrituz.

Hori dela eta, haur eta gazte guztiei ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko beharrezkoa da ikasle guztientzat balio duten estrategiak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketen oztopoak gainditzeko laguntzea. Horretarako, erabat aldatu behar dira hezkuntzaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak.

«(...) ikaskuntzarako oztopoak ez daude berariaz lotuta ikasleek gaitasunetara; aitzitik, metodo eta material zurrunezko elkarrekintzan sortzen dira» (MEYER & David, 2007)



hermes





hermes



### ABIAPUNTUA: KULTURARTEKOTASUNA

Escolak mundu anitz batean bizitzeko herritarrak prestatu beharko ditu, eta horretarako funtsezkoa da identitate kultural guztiak aitortu eta balioestea, kohesioa eta gizarte berdinkidea lortzeko bidean. Baina ezin ditugu lotu immigrazioa eta kulturarteko hezkuntza; izan ere, kulturartekotasuna gure errealitatea ikusteko eta aztertzeko modu berri bat da. Diskurtso hau ez da ikasle atzerritarrentzat soilik, ikasle guztientzat eta hezkuntza komunitatearentzat da.

### KULTURARTEKOTASUNA KONZEPETUAN BI ESANAHI BILTZEN DIRA:

Kultura: jatorri askotariko ikasleek gure gizarteari eta eskolari ematen dizkioten hizkuntzak, ohiturak, munduaren ikuskera, sentsibilitateak eta abar ikusaraztea eta balioestea da, elkar ezagutzea eta elkarrengandik ikastea sustatzea.

Artekotasuna: eskolara egokitzeko prozesua bizkortzea, ikasleen artean eta hainbat jatorritako familien artean harremanak eta elkarrengandik sustatzea.

Kulturartekotasunak eta haren hezkuntzak, beraz, hizkuntzen arteko, kultura eta erlijioen arteko harremanak balioesten ditu. Bizikidetzan aniztasunean eskatzen du, hiru printzipiotan oinarritua: berdintasuna, desberdintasunak onartzea eta eragin-truke positiboa.

“Herri bateko ikastetxean ikasleen % 30 etorkinen seme-alabak direnean getthoa dela diogu, baina Bilboko English School ikastetxean % 30 Europako etorkinen seme-alabak badira, ez da getthotzat hartzen. Kultur aniztasunaz mintzo gara, baina faktore sozioekonomikoa ere hor dago” (GARCÍA, 2008). M. Zapata (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua)

### ZERTARAKO EUSLE EKIMENA?

Gure gizarteak, eta haren baitan escolak, badaki zer den etxeko hizkuntza ez den hizkuntza batean ikastea eta irakastea. Eskolaren erronka nagusietako bat da, hizkuntza(k) ondo ikasteko, modu eraginkorrean irakastea. Zer hartu behar da kontuan? Nola bideratu irakaskuntza? Beharrezkoa dirudi hainbat alderdiri buruz hausnarketa egiteak eta murgiltze ereduak erakutsi digutena eta funtzionatzen duena aldarrikatzea:

- Hizkuntza ikasteko hasierako urratsetan, zer?
- Arrakasta akademikoa lortzeko, zer?

Galdera horiei erantzuna emateko, EUSLE ekimenak berriazko plangintza proposatzen du atzerritar jatorriko ikasleek eskolako komunikazio-hizkuntzaren eskuratzeko prozesua bizkortu eta hobetu dezaten eta, hala, kalitateko hezkuntzarako sarbidea izan.

Ekimen honetan, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako EAEko ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasle etorri berriek hasierako komunikazio-gaitasuna lortzea da helburua (A2 maila), eta, ondoren, berriazko laguntza ematea jakintza-arloetako curriculumak lantzeko behar duten komunikazio-gaitasuna ematea.

“(…) irakasleei galdetzen badiezu zein den geletan dagoen arazorik handiena, hizkuntza esango dizute, eta ez elkarbizitza edo elkar trukea. Irakasleak batzuetan galduta ikusten du bere burua, ez dagoelako tresna linguistikoa nahikorik” (GARCÍA, 2008). J. Ibarra ( Kulturarteko teknikaria, Berritzeguneak)

### ZER BEHAR DU? HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN KONPROMISOA

Oraindik ere eskoletan ikasle berrien sarrerak ezustean harrapatzen gaitu eta egoera horrek, aitor dezagun, tentsioa ekartzen du; izan ere, irakasle batzuek ezintasuna sentitzen dute beste herrialde, kultura eta hizkuntzetako ikasleekin lan egitean. Irakasleen kezka gehienak hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan agertzen

dira: zein hizkuntzari eman lehentasuna, nola irakatsi curriculuma hizkuntza berri batean, nola integratu gelan eskolako hizkuntza ez dakien ikasle bat...

Jabetu beharra dugu, kulturartekotasunaren eta inklusioaren ikuspegitik, ikasle horien harrera eta arreta hezkuntza-komunitate osoaren zeregina dela, eta ez soilik, esku-hartze zuzena izango duten profesionalena. Ikastetxe osoa inplikaturik dago eta denon parte-hartzea funtsezkoa da; harrera-plan sendoa garatu behar du ikastetxeak.

### **HARRERAREN GARRANTZIA ETA IKASLEEN HAZKUNTZA EMOZIONALA ESKOLA ARRAKASTARA HELTZeko**

Ezinbestekoa da ikasleen egoera emozionalarekin zerikusia duten alderdiak kontuan hartzea inklusio eraginkorra eta hezkuntza-aukeren aprobetxamendua bermatzeko.

Ikasle etorri berrien hazkuntza emozionalaz, etikoaz eta sozialaz arduratu behar du eskolak; izan ere, ikasle atzerritarrek ez dute gure funtzionamendu soziala ezagutzen, ez dute lagun eta familiartekoen sarrerik, edo talde txiki eta isolatuetan eraikitzen dituzte euren harremanak. Beraz, autoestimua garatzeko, etorri berriek harreman zabalak behar dituzte, eskolako zereginetan arduradun eta partaide sentitzeko.

Horren barruan, jatorrizko kultura eta ezagutzei zor zaien aitortza eta begirunea daude. Atzerriko ikasleen eskolatze arrakastatsua haien hizkuntza eta kultura aintzat hartzearen mende dago. Ondorioz, ikasle etorri berrien hizkuntza- eta kultura-erreferenteak kontuan hartu behar dira eta eskola-jardueran ageriko egin. Aldi berean, hezkuntza-komunitateak hizkuntza-aniztasunaren aldeko jarrerak sustatu behar ditu, aberastasun komuna baita. Eskolak badu zereginik taldeen arteko harremanak sustatzeko, bertan jaiotakoek eta etorri berrien artean zubiak eraikitzeko.


Horregatik, harrera egitean, gizarte-integrazioa eta eskola-egokitzapena baldintzatu ditzaketek zailtasun sozialak eta afektiboak murrizteko jarduketak aurreikusi behar da. Hezkuntza komunitateko kideen enpatia-gaitasuna, etorri berrienganako itxaropen handiak, inklusioarekiko konpromisoa, komunikazioa eta kultura- eta hizkuntza-aniztasunarekiko pertzepzio positiboa dira harrera errazten duten elementuak. Esparru horretan, interesgarritzat jotzen da gainerako ikasleak harrera-prozesuan inplikatzeko, laguntza-estrategien bidez (adibidez, ikasle enbaxadorea...). Harrera on batek horiek guztiak aurreikusi behar ditu eta hala proposatzen da EUSLE programan.

### **EUSLE GELA, IKASLEEN BEHAR ESPEZIFIKOEI ERANTZUTeko GUNEA**

Eskolak, dudarik gabe, erantzukizun handia dauka ikasle etorri berrien arrakasta akademikoan eta, hartara, bere konpromisoa ezin daiteke azalekoa izan: gure hizkuntza ofizialak menderatzea ezinbestekoa zaie ikasleei. Murgiltze prozesuak ikasle etorri berrien berriazko beharrei erantzun behar die hezkuntza-sisteman sartzen diren unean. Hizkuntzan murgiltzeak prozesu mailakatua eta sekuentziatua izan behar du, hasierako harrerarekin hasten den ibilbideak gidatua, eta, batez ere, erreferentziako gelan errotua, gainontzeko ikasleekin lanean.

Hori dela eta, EUSLEk baldintza hau du abiapuntu: hizkuntza ikasteko berdinaren arteko harreman- eta lankidetzat testuingurua beharrezkoa da, baina are beharrezkoagoa, eskolako komunikazio-hizkuntza ikasteko lan intentsiboa eta espezifikoa, erabileran oinarritua. Hasiara batean, lanketa horrek berdinekiko interakzioan aritzeko aukera emango du, ondoren, curriculuma modu arrakastatsuan lantzeko.

Horrela, erreferentziako gelako jardueretan pixkanaka parte hartzea proposatzen du murgiltze-programa honek eta, batez ere, oinarritzko komunikazio-trebetasunak eskuratzea. Aldi berean, baloratu egiten da ikasleek zein arlotan



hermes



hermes



(gorputz-hezkuntza, plastika, musika ...) jardungo duten gainontzeko ikasleekin. Horretarako, ekimenean parte hartzen ari diren ikastetxeek ordu-banaketa aztertu behar dute eta erabaki komunikazio-hizkuntza zer unetan landuko den espezifikoki EUSLE gelan eta gainerako ikasleekiko elkarrekintza zein unetan bultzatuko den.

Ekimen honetan, ikasle etorri berrien arretaren oinarritzko printzipioetako bat da murgiltze-programa erreferentzia-gelarekin partekatzea. Hala, murgiltze espazioa irekia da, funtzionamendu malgukoa, eta hizkuntzaren ikaskuntza sustatzen duena eskola inklusiboaren testuinguruan. Horregatik, ikasleen beharrian eta ezaugarrietatik abiatuta, ikasle horientzako curriculumerako sarbideari lotutako erabakiak hartu dituzte ikastetxeek, metodologiari eta antolaketari dagokienez. Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren atala da, eta, ondorioz, bere hizkuntza-proiektuaren parte izan behar du.

### LAN-PLAN PERTSONALIZATUA: NORBANAKO JARDUERA PLANA

Ikasleek lan-plan pertsonalizatua dute. Hala, ikastetxeak erabakitzen du ikasleek zer neurri eta laguntza behar dituzten, lehenik eta behin, eskolako komunikazio-hizkuntzari dagokionez, eta ondoren, curriculumeko arlo eta ikasgaiei dagokienez, bai eta zer ebaluazio-irizpiderekin ebaluatuko den ikasleen lana. Bidenabar, azpimarratu behar dugu ikasle bakoitzaren egoera emozionala eta integrazioa oso kontuan hartzen diren alderdiak direla eta, horrenbestez, lan-plan horretan jaso eta aplikatzen dira.

Norbanako Jarduera Planaren abiapuntua hasierako ebaluazioa da. Ikasle etorri berrien alderdi emozionalaz eta sozio-afektiboaz zein kurrikularraz informazioa jasotzeko aukera ematen dio ikastetxeari ebaluazio honek: batetik, izaerari, jarrerari, ikasteko ohiturei, eta ikasleen abileziei dagozkien alderdiak aztertzen dira, eta, bestetik, ikasleek dagoeneko eskuratuta dituzten gaitasun akademikoak, matematikoak eta komunikatiboak. Irakurtzeko eta idazteko trebeziak, ahal den neurrian, ama-hizkuntzan edo jatorrizko herrialdeko eskolatzeko-hizkuntzan aztertzen dira. Ikastetxe guztientzako balorazio tresna komun bat proposatzen da.

### FAMILIAREN INPLIKAZIOA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Hizkuntza ikasteko murgiltze-programa honen hartzaille nagusiak ikasleak badira ere, ezin alde batera utzi familien parte-hartzea eta lankidetzak. Familiak erabateko eragina du seme-alaben sozializazio- eta ikaskuntza-prozesuan.

Ikastetxean, familien inplikazioa funtsezkoa da balioak partekatuko dituen eta hezkuntza-helburuen lorpenean parte hartzea sustatuko duen hezkuntza-komunitatea lortzeko. Horregatik, familiekiko komunikazio- eta lankidetzak-kanalak ezarri dira eta estrategia parte-hartzaileak bultzatu, familiekiko elkarrekintza eta lankidetzak lortze aldera.

Hori dela eta, ikasle etorri berrien familien konfiantza eta segurtasuna hobetzeko hainbat estrategia eta jarduerak proposatzen ditu harrera-protokoloak.

“Guraso etorkinekin lan egitea ere garrantzitsua da. Amak errudun sentitzen dira haurrari hango bizimodua ezin diotelako eman eta gatazka hori landu beharra dago. Ekimenak oso arrazionalak dira eta emozioak lantzea funtsezkoa da” (GARCÍA, 2008). V. Mendoza (irakaslea eta psikoterapeuta)

### EUSLE GELAK

EAEko hezkuntza-sistemara Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetara eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetara etorri berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza ikasteko geletan Europako Erreferentzia Markoaren araberrako A2 hizkuntza maila lortzea da helburua. Etapa bakoitzean, LH edo DBH bi gela daude eta horrenbestez bi maila lantzen dira: A1 eta A2.

Hogeita lau (24) hilabetez aritzen dira ikasleak EUSLE programan erreferentziako gelarekin elkarlanean: A1 gelan hezkuntza sistemara etorri berri diren ikasleak, eta A2 mailan gainontzekoak. Helburua A2 maila erdiestea da eta. Horretarako. 24 hilabeteke denbora-tartea aurreikusi da. Denbora tarte hori luzatu daiteke 36 hilabetera ikasleen jatorria, aurreko ikasturteetako eskolaztea, eskolara duten egokitzapena e.a. kontuan hartuta.

Ordutegi aldetik, ikasgelako laguntza- eta harrera-gelako-ordutegiak malgutasunez planifikatzen dira, ikasle bakoitzaren lan-planaren arabera, ikastetxe bakoitzaren aniztasunari erantzuteko antolaketa-ereduaren barruan. Eusle gelako oinarrizko ordutegiak eskatzen du egunean bizpahiru saio ematea, hau da 10 bat ordu gutxienez eta gehienez 12 ordu astean zehar. Hala ere, ikasleen egoeraren eta ikastetxeen aukeren arabera egokitzapenak egin dira.

Hizkuntza ikasteko parekoekin harreman- eta lankidetzat-estuingurua behar-beharrezkoa da, baina, aldi berean hizkuntzaren berariazko lanketa ere beharrezkoa da. Ordu kopuru horiek aukera ematen diete ikasleei erreferentzia gelan ere gainontzeko kideekin harreman eta lankidetzan aritzeko.

### EUSLE-GELA ETA HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUA

Murgiltze-gelako programazioa diseinatzeko eta ikasleen banakako lan-plana garatzeko erreferentzia-esparrua ikuspegi komunikatiboa da. Hizkuntzak, berez, objektu izateari uzten dio, eta eguneroko bizitzan komunikatzeko eta elkar-rreragiteko tresna bihurtzen da. Hizkuntza berriak ikastetxe barruko eta kanpoko sozializazio prozesuan laguntzen du.

Ikuspegi integratzaile bat proposatzen du EUSLE programazioak komunikazioan oinarrituta; hala, hizkuntza ikasteko edukiak lotzen ditu hainbat egoera komunikatiborekin. Komunikazioa dago gelako programazioaren muinean, ikasleak hasieratik bertatik hasiko dira hizkuntza erabiltzen ataza komunikatiboetara erantzuna emanez: euren burua aurkeztuko diete gainontzekoetara, egindako bidaia azalduko dute, beren biografia kontatuko dute, errezetak azalduko dituzte... hau da, hizkuntzaren komunikazio funtzioak (agurtu, eskatu, galdetu, konbidatu...) estuinguratuta proiektuen bidez. Horrekin batera, pixkanaka, gelako edukiak (matematika, gizarte zientziak...), curriculumari lotuak, eskuratzen joango dira pixkanaka.

Ikerketek erakutsi dutenez (HIK HASI, 2007), ikasleen erreferentzia gelako gai kurrikularrekin lotura egiteko metodologiarik egokiena hizkuntza eta edukiak modu integratuan ikastea da. Proiektu bidezko lanketak aukera ona ematen du lanketa hori bideratzeko. Horixe da, hain zuzen ere, Eusle geletan garatzen ari den programazioaren oinarria.

Oro har, planteamendu honetan, bigarren hizkuntzen ikaskuntzaren arrakasta lortzeko printzipio hauek hartu dira kontuan:

- 1.- **Bigarren hizkuntza ikasteko prozesua luzea da.** Ikerketek diote 2 urte nahikoa duela ikasle etorkin batek elkarrizketa arruntetan hitz egiteko, haietan parte hartzeko aukera baldin badauka, baina 5-7 urte bitartean behar dituela hizkuntza akademikoan trebatu eta haren kideek duten maila lortzeko.
- 2.- **Hizkuntza menperatzeko ez da nahikoa ikasleek eskolako komunikazio-hizkuntzan oinarrizko trebetasunak lortzea.** Oinarritzko maila horrek, A2, gure kasuan, ez du esan nahi ikasle etorri berriak hizkuntza-akademikoa menderatzen duenik. Izan ere, hizkuntza-akademikoak ahalegin kognitibo handia eskatzen du, ez du estuinguruaren laguntzarik, pentsamenduaren beste trebetasunak erabiltzea eskatzen du eta, gainera, lotura handia du ikaslearen



hermes





hermes



aurretiko ezagutzarekin. Horregatik, ikasle etorkinekin hizkuntza akademikoa esplizituki landu behar da, eta hizkuntza mota hori ulertzeko eta garatzeko estrategiak ere bai (EUSKO JAURLARITZA\_ZUBIRIK ZUBI).

- 3.- **Bigarren hizkuntza eta edukiak integratu egin behar dira**, bata bestearekin batera ikasten baita. Indartze saioetan ere, curriculum landuz, oinarriko hiztegia, harremanetarako elementuak eta eskolarako behar diren eduki eta trebeziak ikasten dira.
- 4.- **Ikasleengan hizkuntza ikasteko gogoia piztu behar da**. Hizkuntza ikasteko interesa ez da berez sortzen eta, hortaz, ariketa errepikakorrek, sinplekeriak edo erronka kognitiborik ezak, konexio faltak... asperdura besterik ez dakarte. Ezagutzak ikasleentzat zentzua izan behar du, eta interesa piztu behar du (zerbait aurkitu, zerbait konpondu, zerbait hobeki ulertu, eraiki, aldatu...).
- 5.- **Elkarrekin ikasten da hizkuntza, besteekiko harremanetan**. Faktore afektiboek garrantzi handia dute hizkuntzen ikaskuntzan. Hizkuntza berriaz mintzatzen diren lagunak izateak ikasteko gogoia eta aukerak bultzatzen ditu.
- 6.- **Lehen-hizkuntzak garrantzi handia du**. Ikasleen hizkuntzek presentzia izan behar dute eskolan eta irakasleek horretarako erak bilatu beharko dituzte. Alderdi emozionalari begira, ikasleen hizkuntzei estimua adierazi behar zaie: irakasleak eta ikasleak hitz batzuk ikas ditzakete, ikasleen hizkuntzetan posterrak egin daitezke –ongi etorria emateko, zioritzeko, agurtzeko...–.
- 7.- **Lehen-hizkuntza garatzeak bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari biziki laguntzen dio**. Familiari euren hizkuntza, ahalik eta modu aberasgarriean, erabiltzen jarraitzeko aholkatu behar zaio. Ahal delarik, ikasleei beren familia hizkuntzan irakurtzen eta idazten ere irakatsi behar zaie.
- 8.- **Ikaslearen lehen-hizkuntzaren ezaugarri nagusiak ezagutu behar ditugu**. Lehen hizkuntzen ezaugarriek eragina dute ikasleek ikasiko duten euskarari eta gaztelerari. Irakasleak identifikatu behar ditu ezaugarri horiek oztopoei aurre egiteko eta, horrenbestez, ikasleei laguntzeko.
- 9.- **Ikasleen eta familiaren motibazioa sustatu behar da**. Zenbait herri eta hiritan, kanpotik etorritakoek ez dute ulertuko beren seme-alabek zergatik ikasi behar duten kalean sarritan entzuten ez duten hizkuntza bat. Gizarte honetan, euskara dela zenbait aterren giltza azaldu beharko zaie, alegia, herri honetan eta zentzu guztietan “bat gehiago” izan daitezen horrek duen garrantzia eta abantaila.

### FORMAZIOAREN GARRANTZIA

Eusle ekimenak arrakasta izango badu, ikastetxearen inplikazioa eta konpromisoa behar ditu eta, batez ere, irakasleen formazioa, bai EUSLEn aritzen diren profesionalena, bai erreferentziako gelan aritzen diren gainontzeko irakasleena ere.

Horrenbestez, 2019-2020 ikasturtean, hainbat formazio-saio antolatu dira Hezkuntza Berritzatzeko zerbitzuek, Berritzeguneek, bideratuta, bai ikasle etorri berriekin aritzen diren irakasleekin, HIPlak (Hizkuntza Indartzeko Irakasleak), bai ikastetxeko gainontzeko irakasleekin eta zuzendaritza-batzordeekin ere.

Formazioen baitan, alde batetik, hizkuntzen didaktikari lotutako alderdiak jorratu dira, hala nola hizkuntza jabekuntza prozesua, hizkuntzen ikas-irakaskuntza bideratzeko proiektu bidezko lanketa, komunikaziorako gaitasuna garatzeko gelako estrategiak eta planteamendu didaktikoak... Bestetik, ikasle etorri berrien harrera, hasierako ebaluazioa eta programazioak egiteko eta lan-planak diseinatzeke gidalerroak eman dira.

## ZER EKARRI DU EUSLEK ETA ZER BEHAR DU? ZENBAIT GOGOETA ETA ONDORIO

Eusle ekimenari esker honako hauek lortzen ari dira ikasle etorri berriak:

1. Alderdi afektiboari dagokionez, ikasleak babestuago sentitzen dira. Egoerari aurre egin diezaioketela sinesten dute. Erreferentziako gelan ere onartuak dira.
2. Talde kohesioa lortu da: ikasleak pixkanaka ezagutuz eta gelako dinamikak eta materialak ezagutuz EUSLE gelako tutoreak ikasleen kohesio giroa lortzen ari dira; askotan jarduera partekatutak planteatzen dituzte A1 eta A2ko ikasleekin batera burutzeko.
3. Zubi lana sortu da Eusle gelako irakasleen eta erreferentzia gelako tutoreen/irakasleen artean. Arlo eta ikasgaietan material egokituak sortzen (ez da erraza baina) eta aplikatzen ari dira EUSLE gelako ikasleekin.
4. Hizkuntzaren jabekuntza prozesu luzea dala jakinda ere, ikasleak baliabideak eskuratzen ari dira euskaraz komunikatzeko. Eusle gelako hizkuntza maila, batzuetan, erreferentzia gelako ikasle batzuen baina hobea da.

Hala ere, ekimenak, proiektua den heinean, baditu oraindik ere zenbait alderdi hobetu beharrekoak:

1. Hizkuntza Indartzeko Prestatutako Irakasleek (HIPI) berriazko formazio sakona beharko lukete HIPI lanean hasi aurretik.
2. Ebaluazio gaia, zorrotz, sakon, aztertu behar da: ikasle hauek jakintza-arloetan kalifikatuz salbuetsi, esaterako, eta euren lorpenen araber ebaluatu. Egiten dutena deskribatuz, beste erkidego batzuetan egiten den antzera. Ebaluazio aginduak aukera eman beharko lioke egoera honi, momentu honetan eskaintzen ez diona.

## ERREFERENTZIAK

- COELHO, E. (2016). *Eskola kulturazintzetan irakastea eta ikastea*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua.
- COUNCIL OF EUROPE. (2019). *Plurilingual and intercultural education: Definition and Founding Principles*. Obtenido de <https://www.coe.int/en/web/platform-plurilingual-intercultural-language-education/the-founding-principles-of-plurilingual-and-intercultural-education>
- EUSKO JAURLARITZA. (2018). *Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman*. Eusko Jaurlaritza argitalpen zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA. (2019). *Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru-Plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA. (d.g.). *Heziberri 2020: Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*.
- EUSKO JAURLARITZA\_ZUBIRIK ZUBI. (d.g.). *Zubirik Zubi*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia6/eu\\_2027/adjuntos/zubirik\\_zubi/materiales\\_educacion\\_primaria/HASIERA.htm](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/HASIERA.htm) helbidetik eskuratua
- GARCÍA, M. (2008). Elkarbizitza da giltza. *Argia*, 1-16.
- HIK HASI. (2007.eko ekainak 1). Hizkuntzen irakaskuntza iritsi berriekin. 119.
- IBARRA, J. (2012). Integración lingüística del alumnado inmigrado. *Textos de didáctica de la lengua y la literatura*(61), 9-21.
- ISEI-IVEI. (2018). *Txosten Exekutiboa Oinarrizko Hezkuntzaren egoerari buruz (2017)*. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea.
- MEYER, A., & David, R. (2007). Teaching every student in the digital age: Universal Design for Learning. *Education Tech Research* (or. 521-525). en
- PETA. (d.g.). *Learning to learn in a second language*. <http://www.iteachilearn.com/cummins/bicscalp/htm> helbidetik eskuratua.



hermes

